Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko ekainaren 26a, ostirala — 120 — Viernes, a 26 de junio de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Ostalaritza eta jolas-jardueretako establezimenduen instalazio, irekiera eta funtzionamendua arautuko duen udal ordenantzaren aldaketaren behin betiko onarpena.*

Udalbatzak, 2014ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Ostalaritza eta Jolas-Jardueretako Establezimenduen Instalazio, Irekiera eta Funtzionamendua Arautuko duen Udal Ordenantzaren Aldaketaren Hasiera onarpena eman diola.

2014eko martxoaren 19an 53. zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta jendaurrean 30 lanegunez erakutsi ondoren, eta Udaleko Iragarki Oholean agertuz.

Jendeaurreko epea bukatu ondoren, honako alegazioak aurkeztu direla:

— 2014ko apirilaren 9ko 2264 SE zkikoa, Adelaida Etxeberria Arozena andrea.

— 2014ko apirilaren 11ko 2350 SE zkikoa, Elkartu-Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea.

Udalbatzak, 2014ko maiatzaren 29ko bilkuran akordioa hartu zuela, xedapena honakoa izanik:

«*Lehendabizi.* Adelaida Etxeberria Arozena andreak 2014ko apirilaren 9an 2264 sarrera erregistro zenbakiarekin aurkeztutako alegazioa onestea, hau da, 1. ataleko Seigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako aukera Santiago kalera zabaltzea, alegia, 2.3 Jatetxea gisa sailkatuak izanik Taberna Jarduera burutzen ari diren establezimenduei –2.2 taldeari dagokiona– araupetzeko aukera emateari buruzkoa.

Ondorioz, Seigarren Xedapen Gehigarriko 1 ataleko idazketa honela geratuko litzateke:

«1. San Pedro eta Santiago kaleetan dauden 2.3 Jatetxeak taldean sailkatutako establezimenduek, gaur egun 2.2 atalean txertatutako jarduera burutzen ari direnek, haien jarduera araupetu ahal izango dute, azken taldean txertatuz –2-2 Taberna Jatetxea–.

*Bigarren.* Onestea 2014ko apirilaren 11n Elkartuk Minusgaitasun Fisikoa duten Gipuzkoako Pertsonen Federazio Koordinakundeak 2350 SE Zenbakiarekin aurkeztutako idatzia, Seigarren Xedapen Gehigarriko 2.2 atalean baldintza hau betetzeko: establezimenduak indarrean dauden arkitektura, ingurumen, higiene, osasun, segurtasun, suteak prebenitu eta itzali, eta aplikatu beharreko gainerako baldintzak beteko ditu, eta arkitektura alorrekoak ez ezik irisgarritasun alorrekoak ere bai.

Ondorioz, Seigarren Xedapen Gehigarriko 2.2 ataleko idazketa honela geratuko litzateke:

Establezimenduak irisgarritasun, arkitektura, ingurumen, higiene-osasun, segurtasun suteen prebentzio eta itzaltze gaietan nahiz aplikatu beharreko gainerako gaietan indarrean dagoen araudia bete beharko du 2.2 taberna-jatetxea talderako sailkapen aldaketa eskatzeko, jarduera araupetzeko baimena eskatzeko.

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza municipal reguladora de instalación, apertura y funcionamiento de los establecimientos de hostelería y actividades recreativas.*

Que el Ayuntamiento en sesión plenaria celebrada el 27 de febrero de 2014 adoptó aprobar inicialmente la Modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de Instalación, Apertura y Funcionamiento de los Establecimientos de Hostelería y Actividades Recreativas.

Que habiendo sido sometido a información pública durante el plazo de 30 días hábiles mediante inserción de anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa num. 53 de 19 de marzo de 2014 y en el Tablón de Anuncios Municipal.

Que transcurrido el plazo de la exposición pública se han presentado las siguientes alegaciones:

— RE n.º 2264 de 9 de abril de 2014, D.ª Adelaida Etxeberria Arozena.

— RE n.º 2350 de 11 de abril de 2014, Elkartu-Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa.

Que el Ayuntamiento en sesión plenaria celebrada el 29 de mayo de 2014 adoptó acuerdo cuya parte dispositiva es la siguiente:

«*Primero.* Estimar la alegación R.E. núm. 2264 de 9 de abril de 2014, presentada por D.ª Adelaida Etxeberria Arozena, ampliando a la calle Santiago la posibilidad que contempla la Disposición Transitoria Sexta en el apartado 1, el ámbito al que se circunscribe la posibilidad de regularizar la actividad que vengan realizando como bar –clasificada como grupo 2.2– los establecimientos encuadrados en la categoría 2.3 Restaurante.

En consecuencia, la redacción de la Disposición Transitoria Sexta, apartado 1, será la siguiente:

«1. Los establecimientos clasificados en el grupo 2.3 Restaurantes ubicados en la calle San Pedro y en la calle Santiago, que en la actualidad vienen realizando actividad encuadrada en el apartado 2.2, podrán regularizar su actividad, encuadrándola en este último grupo –2.2 Bar Restaurante–».

*Segundo.* Estimar la alegación R.E. núm. 2350 de 11 de abril de 2014, presentado por Elkartu Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física en Gipuzkoa, de incorporar a la Disposición Transitoria Sexta en el apartado 2.2, referido al requisito de cumplir –el establecimiento– la normativa en vigor en materia arquitectónica, ambiental, higiénico-sanitaria, de seguridad, prevención y extinción de incendios, y demás de aplicación, asimismo, y junto a la arquitectónica, la referida a la accesibilidad.

En consecuencia, la redacción de la Disposición Transitoria Sexta, en el apartado 2.2, será la siguiente:

«Cumplir –el establecimiento– la normativa en materia de accesibilidad, arquitectónica, ambiental, higiénico-sanitaria, de seguridad, prevención y extinción de incendios, y demás de aplicación en el momento de solicitar la licencia para la regularización de la actividad mediante cambio de clasificación al grupo 2.2 bar-restaurante».

EK\CV GAO-I-2015-06020

*Hirugarren.* Aurreko xedapen zatietan aurreikusitako aldaketak sartuta, behin betiko onespena ematea Ostalaritza eta Jolas Jardueretako Establezimenduen Instalazioa eta Funtzionamendua arautzen duen Udal Ordenantzaren Aldaketari.

*Laugarren.* Honakoa akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea».

Ondorioz, ordenantza honela idatzia geratuko da:

*Ostalaritza eta jolas jardue-retako establezimenduen ins-talapena eta funtzionamendua arautuko duen udal ordenantza.*

ZIOEN AZALPENA

Gure hiriguneetan elkarbizitzarako sortzen den arazorik larrienetako bat, ostalaritzako eta jolaserako establezimenduen, batipat taberna eta diskoteken, jarduera nolabait bertako biztanleen atsedena eta ongizatearekin bateratzea izaten da.

Gizartearen aisirako ohiturak asko aldatu dira azken urteotan eta gaua eta musika bitarteko garrantzitsu bihurtu dira; herritarrek zaratarekiko eta lokal publikoen segurtasunarekiko duten sentsibilizazioa ere gero eta haundiagoa da; musika-tresnak ere gero eta sofistikatuagoak dira; establezimendu horietako bezeroen eta gainontzeko herritarren artean sortzen den tirabirak behartzen ditu sektore horretako enpresariak ahalegin berezi bat egitera, dibertitu nahi dutenen eta lasaitasuna nahi dutenen arteko oreka bilatzearren.

Herriko zenbait lekutan taberna kopuru haundia dago, eta hori ez da gauza berria, baina gaur egun arazoa areagotu egiten da zarata haundiagotu eta kaleko gizarte-harremanak gehitzen diren einean, eta ondorioz zenbaitetan herritar askori ezinezkoa gertatzen zaio atsedena hartzea.

Gertakizun hauek bultzatu dituzte Udalek, berarizko ordenantzak ezartzera, eta horiei esker herritarrei eragozpenak ekiditeko exijentzia zorrotzagoak ezartzeaz gainera, establezimendu berriak jartzea eta lehendik daudenak egokitzea arautuko dute.

Gaur egun indarrean dagoen Ordenantza, 1992ko uztailaren 7an onartu zen, oraingo honek duen helburu berdinarekin, baina zaharkituta geratu da azken urteotan, bai udalerri mailan eta bai orokorrean, gai horri buruzko hainbeste lege eta arau berri sortu delako.

Hiri antolamendua sakonki berrikusi eta garapen urbanistikorako arau berriak ezartzeko 1996ko abenduaren 24an behin betikoz onartu ziren Hiriko Planeamenduko Arau Subsidiarioek,; Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueretarako azaroaren 10eko 4/1995 Legeak; Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak ekainaren 17an emandako 140/1997 zenbakia duen Dekretuak, Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren ordutegiak ezartzen dituenak, eta Euskal Herriko Inguru-Giroaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak eskatzen dute gehiago luzatu gabe honelako jardueretarako udal araudia egokitzea, Hondarribiko udalerrian, kontraesanik gabe eta exijitu litekeen segurtasun juridikoarekin ezarri ahal izateko.

Bestalde Ordenantza honen espirituan kontutan izan da Drogamenpetasunarekiko Prebentzioa, Laguntza eta Bergizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea, hain zuzen ere menpekotasuna sortzen duten sustantzien kontsumoaren ondoriozko ezaugarri sozial, komunitario, heziketa edo osasunezkoak arautzen dituen Legea. Gai horretan Hondarribiko udala ahalegin haundia egiten ari da prebentzio komunita-

*Tercero.* Incorporadas las modificaciones contempladas en los apartados dispositivos anteriores, aprobar definitivamente la Modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Instalación, Apertura y Funcionamiento de Establecimientos de Hosteleria y Actividades Recreativas.

*Cuarto.* Proceder a la publicación del presente acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa».

En consecuencia, la ordenanza queda redactada de la siguiente manera:

*Ordenanza municipal reguladora de la instalación, apertura y funcionamiento de los establecimientos de hostelería y actividades recreativas.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Uno de los problemas más serios en la convivencia ciudadana en nuestros núcleos urbanos lo constituye la compatibilización de los usos de hostelería y actividades recreativas, muy en particular los bares y discotecas, con el descanso y bienestar de los residentes de los mismos.

La sustancial modificación en los hábitos sociales de ocio en los que la noche y la música juegan un papel mucho más importante que el de hace tan sólo unos pocos años; la progresiva sensibilización de los ciudadanos en relación con la contaminación acústica y la seguridad de los locales públicos; los medios de producción de sonidos cada vez más sofisticados; las tensiones entre los empresarios y clientes del sector y los demás ciudadanos, obligan a un especial esfuerzo para tratar de encontrar un razonable equilibrio entre quienes buscan su diversión en tales establecimientos y aquellos que desean descansar.

El fenómeno de la concentración de bares en determinadas zonas urbanas, si bien no es nuevo, hoy constituye un problema añadido al producir un mayor grado de contaminación acústica e intensidad de relación social en las vías públicas, llegándose en algunos casos a impedir el descanso a grupos amplios de ciudadanos.

Todas estas circunstancias han impulsado a los Ayuntamientos a dictar ordenanzas específicas, que además de establecer nuevas y mayores exigencias para evitar molestias a los vecinos regulan la posibilidad de implantación de nuevos establecimientos y la adecuación de los existentes.

La Ordenanza actualmente vigente aprobada el 7 de Julio de 1992, dictada con los mismos objetivos que la presente, ha quedado obsoleta por la intensa producción legislativa y reglamentaria de estos últimos años al respecto, tanto en el ámbito del municipio como con carácter general.

Las Normas Subsidiarias de Planeamiento de la Ciudad, aprobadas definitivamente el 24 de diciembre de 1996, que suponen una profunda revisión de su ordenación urbana y establecen unas nuevas reglas respecto de su desarrollo urbanístico; la Ley 4/1995 de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas; el Decreto del Departamento de Interior del Gobierno Vasco 140/1997 de 17 de junio, por el que se establecen los horarios de los Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas; y por último la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, demandan sin más demora una adecuación de la normativa municipal de este tipo de actividades con el fin de poder aplicarlas en el término municipal de Hondarribia sin contradicciones y con la seguridad jurídica exigible.

Por otro lado, en el espíritu de esta Ordenanza, se tiene presente la ley 18/1998 de 25 de junio sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias, Ley en la que se regulan aspectos sociales, comunitarios, educativos y sanitarios que se derivan del fenómeno del consumo de sustancias susceptibles de generar dependencia. En este sentido el Ayuntamiento de Hondarribia viene realizando un esfuerzo conside-



EK\CV GAO-I-2015-06020

rioa guztien eginkizuna izan dadin eta bertan agente sozial desberdinek parte har dezaten. Besteak beste ostalaritzako enpresari eta profesionalak sartzen dira. Ordenantza honetan ez dira arautzen ezaugarri partikularrak edo hiriko establezimenduetan saldutako tabako eta edariaren gehiegizko kontsumoaren edo desegokiaren ondoriozkoak; hala ere azpimarratu nahi da jarduera ekonomikoko sektore hau prebentzioaren ikuspuntutik arautzeko premia. Hemen aurkezten den Ordenantza honek etorkizunean beste zehatzago batzuk sortuko dituelakoan eta horiek drogamenpekotasunaren prebentzio komunitarioan zuzenki eta era zabalagoan eragina izango dutelakoan.

Hondarribian ostalaritza sektorearen presentziak garrantzi haundia du bere jarduera ekonomiko eta sozialerako eta horregatik presio haundiak jasaten ditu taberna berriak jartzerakoan, batez ere Portu Auzoaren inguruan, lehendik dauden establezimendu asko ere arauzkanpo baitaude.

Kezkagarria da Hondarribiko hirigunean kokatutako ostalaritzako 101 establezimenduetatik 67 neurri batean arauz kanpo egotea. Egoera hori onartezina da eta bai Udalak eta bai sektore horretako enpresariek seriotasunez jokatu beharra daukate arazo hori konpontzeko, oraingo egoeraz jabetuta baina ingurugiroko exijentzia berrietara ahalik eta gehien egokituta, batez ere auzokoei eragozpenak sortzen dizkien gaietan.

Horretarako aldez aurretik joko-arau argi eta errealistak prestatu behar dira, gai horri buruzko araudiarekin bat etorriko direnak.

Jarduera hauen erregulaziorako oztoporik haundiena beren definizioa bera izaten da. Ezinbestekoa da beraz, ostalaritzako establezimendu desberdinak argi eta garbi zehaztuko dituen sailkapen bat egitea, zalantzarik edo ulertezinik sor ez dadin, eta hortik abiatuta ezarri ahal izango dira bakoitzari dagozkion arau zehatzak.

Horrek bere eragina izango du neurri haundi batean Ordenantza hori errealitatera egokitzeko garaian eta ondorioz bere eraginkortasun praktikoan.

Ostalaritza hitzak eremu zabala hartzen du eta bertan hainbat jarduera desberdin sartzen dira, hauetako batzuk ez dute arazo haundiegirik sortzen beren inguruan, baina beste batzuk aldiz, elkarbizitzarako oztopo bihurtzen dira. Horregatik irizpide objetibo eta neurgarrien arabera, mota bateko eta besteko establezimenduak bereizi behar dira, ingurugiroan eta gizarte bizitzan izan dezaketen eraginaren arabera.

Tabernaren, taberna-jatetxearen eta jatetxe soilaren arteko muga ez da hain argia eta arazoak sortzen ditu indarrean dagoen Ordenantza ezartzeko garaian, hauetako batzuk eta besteek inguruan duten eragina erabat desberdina baita. Horretaz gainera establezimenduz gainezka dauden eremuetan hauetako gehienak tabernak direla kontutan hartzen badugu eta hauek direla hain zuzen ere arazorik gehien sortzen dutenak, behar beharrezkoa da jarduera hauetako bakoitza objetiboki sailkatzea.

Horregatik, Ordenantza honek barra aipatzen du desberdintasun horren ezaugarri gisa, alegia jatetxe, txokolategi, te-areto eta antzekoetarako baimena dutenek praktikan taberna edo taberna-jatetxe bilaka ez daitezen, lehen horrela gertatu izan baita.

Era berean azken urteotan izen berriak asmatu dira, kasu batzuetan galizismo eta anglizismo bitxiak erabiliz, hala nola Snack, Pub, Brasserie, etabar. eta hauen bidez merkataritzako eragina sortzeaz gainera, askotan nola edo halako tabernak besterik ez direnen izaera nolabait ezkutatzeko erabili ohi dira.

rable para conseguir que la prevención comunitaria sea una tarea de todos con la participación de distintos agentes sociales. Entre ellos están los empresarios y profesionales de la actividad hostelera. En esta Ordenanza no se entra a regular aspectos particulares o supuestos derivados del uso inadecuado o abusivo de tabacos o bebidas alcohólicas vendidas desde los establecimientos hosteleros de la ciudad; no obstante se quiere remarcar la necesidad de regular este sector de actividad económica también desde una óptica preventiva. Partiendo de la convicción de que la Ordenanza que se presenta facilitará, en el futuro, otras más precisas posibilitando que las actuaciones que de ellas se deriven incidan en la prevención comunitaria de las drogodependencias de forma directa y explícita.

Hondarribia es una Ciudad en la que el sector de hostelería tiene una presencia muy importante en su actividad económica y social y por ello sufre serias presiones, particularmente en la zona de la Marina, para la implantación de nuevos bares, existiendo además muchos establecimientos en situación irregular.

Resulta alarmante que de los 101 establecimientos de hostelería de los que la Ciudad dispone en su zona urbana 67 se encuentren con algún tipo de irregularidad. Dicha situación es insostenible, y requiere de una actuación realista y seria tanto del Ayuntamiento como de los propios empresarios del sector para resolverla, asumiendo la situación de facto pero adecuándola en la medida de lo posible a las nuevas exigencias ambientales, particularmente en lo que se refiere a la producción de molestias a los vecinos.

Para ello y con carácter previo es preciso disponer de unas reglas de juego claras y realistas en concordancia además con las normas de aplicación general en la materia.

Uno de los problemas que se presenta en la regulación de estas actividades es su propia definición. Es imprescindible establecer sin dar lugar a dudas o interpretaciones una clasificación que identifique claramente los diferentes tipos de establecimientos de hostelería, porque a partir de la misma se podrán aplicar de manera efectiva las normas específicas que a cada uno de ellos le correspondan.

De ello deriva en gran medida el acierto y la adecuación a la realidad de la Ordenanza y por ende su eficacia práctica.

El término hostelería abarca muchas y muy diversas actividades, en las que unas no plantean mayor quebranto desde la perspectiva ambiental y otras si constituyen un problema de convivencia. Por ello es necesario diferenciar en base a criterios objetivos, medibles y tangibles unos establecimientos de otros, desde precisamente su impacto o afección al medio ambiente y a la convivencia social.

La difusa frontera entre la actividad de bar y bar-restaurante, con la de restaurante ha provocado problemas en la aplicación de la Ordenanza vigente cuando en la realidad la afección ambiental de una y de otra son muy distintas. Si a ello añadimos que en las zonas de mayor saturación la iniciativa se dirige preferentemente a ejercer la actividad de bar, que es la que produce mayores conflictos, urge más si cabe establecer una definición objetiva de cada una de estas actividades.

En este sentido la Ordenanza define la barra como elemento singular para establecer esa diferenciación con el fin de evitar que en la práctica establecimientos con licencias para la actividad de restaurante, chocolaterías, salones de té etc. se transformen de hecho en bares o bares-restaurantes como así ha venido ocurriendo.

Además, estos últimos años han proliferado términos, acudiendo incluso a extraños galicismos y anglicismos como Snack, Pub, Brasserie, etc. que al margen de su pretendido impacto comercial, son artificios para sortear lo que en la práctica son en muchos casos pura y simplemente bares más o menos sofisticados.

EK\CV GAO-I-2015-06020

Ordenantzak eazartzen duen sailkapena, bat dator Eusko Jaurlaritzako ordutegien Dekretuan agertzen diren taldeekin, horrela aplikatzeko garagian inolako nahasketarik sor ez dadin.

Establezimendu berriak irekitzeko mugari dagokionez Arau Subsidiarioetako lurzoruaren hirigintza erregimeneko sailkapen eta kalifikazio berriak hartzen dira abiapuntu moduan, horrela Ordenantza hau, Hiriko antolamendu berriaren araberakoa izan dadin.

Horretarako bederatzi eremutan banatu da, hauei dagokien dokumentazio grafikoarekin eta bakoitzean zenbat establezimendu eta nolakoak jar litezkeen zehaztuz.

Ez urbanizagarri moduan sailkatutako lurrei eta industrigintzarako edo hirugarren sektorerako kalifikazioa duten hiri-lur urbanizagarriei dagokienez, Arau Subsidiarioek ezarritakora mugatzen da Ordenantza hau. Eta egoitza moduan kalifikatutako hiri-lur urbanizagarrietan kokatzen da gehienbat, hain zuzen ere eraginik haundiena eta inguruarekiko eta elkarbizitzarako arazorik gehien sor ditzaketenak hauek direlako, horregatik kasu hauetan Arau Subsidiarioetan aurrikusi gabekoa osatu eta zehazten du.

Batetik besterako tarte jakin bat utzita taberna berriak jartzeko muga hori ezabatu egiten da, istiluak sortzen dituelako, eta bere ordez xehetasun osoz arautzen da eremu bakoitzean talde bakoitzeko zenbat establezimendu eta nolakoak jar litezkeen. Zeren eta tartearena neurri egokia izan liteke oso beteak dauden eremuetan, baina hirigune berrietan ez du inolako zentzurik horrela jokatzeak, harreman sozialetako guneek gutxienezko establezimendu kopuru bat behar baitute beren inguruan.

Establezimenduek bete beharreko arau teknikoei dagokienez, izaera orokorrekoez gainera, akustikari dagokiona aipatzen da, auzokoei eragozpenik haundienak sortzen dizkiena hori delako, eta jardunerako erosotasunari dagozkion beste batzuk ere zehazten dira.

Goian aipatutako legerian arauhausteak sailkatu eta kalifikatzen badira ere, komenigarria da zigor erregimena ere ongi zehaztuta uztea, horrela Udalak modu eraginkor batean jokatu ahal izango baitu herritarren arteko elkarbizitzarako arauak betetzen ez dituztenekin eta gizalegez jokatzen ez dutenekin.

Aldibaterako xedapenetan ezartzen dira Hiriko establezimendu askoren gaur egungo egoera arautzeko irizpideak, hauetako asko jarduera gogaikarrien araudia sortu baino lehenago eraikitako etxeetan kokatuta daude eta hauekin saiatu behar da auzokoei eragozpenak sortzen dizkien arauetara egokitzen.

*1. artikulua.*

Ordenantza honen helburua, Hondarribiko udalerriko ostalaritza eta jolas jardueretako establezimenduen instalapena eta funtzionamendua arautzea da.

*2. artikulua.*

Ordenantza honen ezarpenerako establezimenduak ondoren aipatzen diren multzoetan sailkatzen dira:

1. taldea. Alkoholik gabeko lokalak.

Adin txikikoen jolaserako eta aisirako establezimenduak eta alkoholik gabeko edariak eta janariak saltzen dituztenak, lokalaren barruan edo inguruan jateko janaririk prestatu gabe.

2. taldea. Tabernak eta Jatetxeak.

Edari alkoholdunak edo janariak saltzen diren establezimenduak, lokalaren barruan edo bere inguruan jateko janariak prestatuz edo prestatu gabe.

La clasificación que establece la Ordenanza concuerda con los grupos del Decreto de horarios del Gobierno Vasco, con el fin de poder aplicarlos sin duda o equívoco alguno.

Respecto de la limitación de la implantación de nuevos establecimientos se parte de la nueva clasificación y calificación del régimen urbanístico del suelo de las NN.SS., con el fin de que la Ordenanza resulte congruente con la nueva ordenación urbanística de la Ciudad.

Para ello se establecen nueve zonas, con la documentación gráfica que las representa, detallando para cada una de ellas qué establecimientos y con qué intensidad pueden implantarse.

En lo que se refiere a los suelos clasificados como no urbanizables y los urbanos y urbanizables calificados como de uso industrial y/o terciario la Ordenanza se remite a lo establecido en las NN.SS Es en los suelos urbanos y urbanizables con calificación residencial donde fija su atención la Ordenanza, por entender que es donde se producen las afecciones y problemas de contaminación ambiental y por ello de convivencia social, completando y detallando lo no previsto en las NN.SS.

Se suprime por ser origen de conflictos la limitación de implantación de nuevos establecimientos de bares en función de una distancia determinada, sustituyéndose por la regulación detallada de cuáles y cuántos establecimientos de los diferentes grupos clasificados pueden implantarse en cada una de las zonas. Es preciso admitir que la distancia es una medida que puede ser útil en zonas de cierta saturación pero en nuevas zonas urbanas no tiene sentido alguno por cuanto los núcleos de relación social requieren de un umbral mínimo de establecimientos en proximidad.

Respecto de las normas técnicas que deben cumplir los establecimientos, sin perjuicio de las existentes con carácter general, se detalla lo relativo a la acústica por entender que es la principal fuente de molestias a los vecinos, y se precisan otras que aluden a la confortabilidad en el ejercicio de la actividad.

Aunque en la legislación citada anteriormente se tipifican y califican infracciones, es conveniente precisar el régimen sancionador, con el fin de que el Ayuntamiento pueda de forma eficaz corregir las conductas que no respeten las normas de convivencia ciudadana y muestren una falta de solidaridad social.

En las disposiciones transitorias se establecen los criterios para poder regularizar la situación de hecho en la que se encuentran una parte muy importante de los establecimientos de hostelería de la Ciudad, muchos de ellos en edificios construidos con anterioridad a la primera regulación de actividades molestas, tratando de conciliar su permanencia con su adaptación a aquellas normas que tienen mayor incidencia en el origen de las molestias a los vecinos.

*Artículo 1.*

La presente Ordenanza tiene por objeto regular la instalación, apertura y funcionamiento de los establecimientos de hostelería y actividades recreativas del término municipal de Hondarribia.

*Artículo 2.*

A los efectos de la presente Ordenanza los establecimientos se clasifican en los siguientes grupos:

Grupo 1. Locales sin alcohol.

Establecimientos para recreo y ocio de menores, y aquellos en los que se sirvan bebidas sin alcohol y alimentos, sin que exista actividad de restauración, para su consumo directo en el interior del local o en sus inmediaciones.

Grupo 2. Bares y Restaurantes.

Establecimientos en los que se expendan bebidas alcohólicas y/o alimentos con o sin actividad de restauración para el consumo directo en el interior del local o en sus inmediaciones.

EK\CV GAO-I-2015-06020

Aldi berean establezimendu hauen beste azpisailkapen bat egiten da:

2.1. Tabernak.

Hauen ezaugarri fisiko nagusia barra bat izatea da, edozein dela ere horren neurria eta bertan edari alkoholdunak edota janariak saltzea, jarduerarean ardatza bera izanik.

2.2. Taberna-Jatetxeak.

Hauek bezeroak zuzenean atenditzeko barra bat izateaz gainera, janariak eta edariak zerbitzatzen dituzte horretarako jarritako mahaietan, janarien prestaketa ere bertan eginez.

2.3. Jatetxeak.

Hauek ez dute bezeroak zuzenean atenditzeko barrarik eta beren jarduera, horretarako jarritako mahaietan eseritako bezeroei janaria zerbitzatzea da, janari horien osagarri gisa edari alkoholdunak ere zerbitzatu ahal izango dituztelarik.

3. taldea. Taberna bereziak.

2.1. eta 2.2. taldeetako establezimenduak dira eta jarduera berezi moduan musika jartzen dute, nahiz eta dantzarako pistarik ez izan.

4. taldea. Diskotekak eta Jai Aretoak.

Establezimendu hauetan edari alkoholdunak barran edota mahaietan saltzeaz gainera, jarduera berezi moduan musika eta dantzarako eta zuzeneko ikuskizunetarako pistak dituzte.

5. taldea. Jokorako Lokalak.

Zorizko jokoak erabiltzen dituzten jolaserako eta aisirako establezimenduak dira, ondoren aipatzen diren moduan azpisailkatuak:

5.1. Jolas aretoak.

A motako zorizko joku-makinak dituzten establezimenduak dira eta hauetan ez da edari alkoholdunik saltzen.

A motako makinak dira denborapasarako edo jolaserako bakarrik erabiltzen direnak, partida bakoitzari dagokiona ordaindu eta inolako saririk ematen ez dutenak.

5.2. Joko Aretoak.

B motako zorizko joku-makinak dituztenak dira eta bertan edari alkoholdunak saltzen dira.

B motako makinak, partida bakoitzari dagokiona ordainduta jolasaldi baterako aukera emateaz gainera, aldizka dirusariren bat ematen dutenak dira. Sari hauek programatuta egongo dira eta ez zoriaren arabera.

5.3. Bingo Aretoak.

Bingo jokorako establezimenduak dira.

5.4. Jokorako Kasinoak.

Zorizko jokoetarako erabiltzen diren establezimenduak dira, hala nola erruleta, kartak, C motako makinak etab.

C motako makinak, apostu jakin baten truke jokoan aritzeaz gainera, aldizka sari bat ematen dutenak dira, baina sari hau beti zoriaren araberakoa izango da.

6. taldea. Ostatuak.

Pertsonen ostaturako establezimenduak dira eta ondoren aipatzen den moduan azpisailkatuta daude:

6.1. 12 logela edo gutxiago dituztenak.

Pertsonen ostaturako establezimenduak dira, hala nola hotelak, ostatuak, pentsioak eta Albergeak, bezeroentzako gehienez 12 logela dituztenak.

Estos establecimientos se subdividen a su vez en:

2.1. Bares.

Son aquellos cuya característica física diferenciadora fundamental es que disponen de una barra, independientemente de cual sea su tamaño, en la que se sirven bebidas alcohólicas y/o alimentos, y que constituye el centro de la actividad.

2.2. Bares-Restaurantes.

Son aquellos en los que además de disponer de una barra para servicio de atención directa a los clientes, sirven comidas y bebidas en mesas dispuestas a tal fin, ejerciendo la actividad de restauración.

2.3. Restaurantes.

Son aquellos que no disponen de barra para servicio de atención directa a los clientes, y cuya actividad es la de servicio de comidas que se desarrolla en mesas dispuestas a tal fin con los clientes sentados, pudiendo servir bebidas alcohólicas como complemento de las comidas.

Grupo 3. Bares especiales.

Son aquellos establecimientos del grupo 2.1. y 2.2. en los que se dispone, como actividad especial, de música sin pista de baile.

Grupo 4. Discotecas y Salas de Fiestas.

Son aquellos establecimientos que además de servir bebidas alcohólicas en barra y/o en mesas disponen, como actividad específica, de música con pista de baile y espectáculos en directo.

Grupo 5. Locales de juego.

Son aquellos establecimientos para recreo y ocio en el ejercicio de juegos de azar y se subdividen en:

5.1. Salones recreativos.

Son aquellos establecimientos que disponen de máquinas de juegos de azar del tipo A, y en los que no se expenden bebida alcohólicas.

Son máquinas del tipo A aquellas de mero pasatiempo o recreo que conceden un tiempo de disfrute a cambio del precio de la partida y ningún premio en metálico ni en especie.

5.2. Salones de juego.

Aquellos que disponen de máquinas de juegos de azar del tipo B, y expenden bebidas alcohólicas.

Son máquinas del tipo B aquellas que a cambio del precio de la partida conceden un tiempo de juego y, eventualmente, un premio en metálico. Los premios estarán programados, no dependiendo del azar.

5.3. Salas de Bingo.

Son los establecimientos dedicados al juego del Bingo.

5.4. Casinos de Juego.

Son los establecimientos destinados a juegos de azar tales como la ruleta, los naipes, máquinas del tipo C etc.

Son máquinas de tipo C las que, a cambio de una determinada apuesta, conceden un tiempo de uso o juego y, eventualmente, un premio que dependerá siempre del azar.

Grupo 6. Hospedaje.

Son los establecimientos destinados al hospedaje de personas y se subdividen en:

6.1. Establecimientos con 12 o menos habitaciones.

Son aquellos establecimientos destinados al hospedaje de personas, tales como hoteles, hostales, pensiones y albergues que dispongan de hasta de 12 habitaciones para atención de los clientes.

EK\CV GAO-I-2015-06020

6.2. 12 logela baino gehiago eta etxebizitzarik ez dutenak.

Pertsonen ostaturako establezimenduak dira, hala nola hotelak, ostatuak, pentsioak eta aterpetxeak dira, bezeroentzako 12 logela baino gehiago dituztenak eta hirulurrean edo lurzoru urbanizagarrian kokatutako turismoko akanpalekuak.

Hauek kokatuta dauden eraikinean ez da etxebizitzarik izango, establezimendua kudeatzen duenarena izan ezik.

6.3. Nekazal Etxeak.

Landa-lurrean pertsonen ostaturako erabiltzen direnak dira, hala nola turismoko akanpalekuak, nekazalturismoko ostatuak, baserriak, aterpetxeak eta landa-lurreko akanpalekuak.

7. taldea. Elkarteak.

Beren helburua diru etekina lortzea izan ordez, bertako bazkide eta partaideei zerbitzua eskaintzea dutenak dira, hala nola gastronomi elkarteak, txokoak, auzo elkarteak, talde politikoenak eta kultura edo kirol elkarteak.

8. taldea. Behin behinekoak.

Beren jarduera denbora jakin batean bakarrik garatzen dutenak dira, iraupenerako asmorik gabe, baina sarritan jartzen direnak, hala nola txoznak, kaseta mugikorrak edo finkoak, karpak etab.

*3. artikulua.*

Ordenantza honek xedatutakoaren arabera, barratzat hartuko dira bezeroek bere gainean edo inguruan jateko edo edateko edari alkoholdunak edo janariak zerbitzatzeko erabiltzen diren elementuak edo edozein materiale motaz egindako altzariak, hala nola beirazkoak, zurezkoak, altzairuzkoak, edreiluzkoak, zeramikazkoak, hormigoizkoak etab.

Horren neurriak edo izenak ez du inolako garrantzirik izango ordenantza hau ezartzeko garaian, berdin baita erakusmahaia edo antzeko beste izena erabili, beti ere aurreko lerroetan aipatutako definizioaren arabera jokatuko delako.

2.3. taldeko establezimenduetan, leku publikoa 100 m$^2$. baino haundiagoa denean eta barraren luzerak 1,5 ml. gainditzen ez dituenean ez da barratzat hartuko, bezeroei harrera egiteko, hauei itxaroteko eta mahaiak zerbitzatzeko bakarrik erabiliko delako.

*4. artikulua.*

Ostalaritzako establezimenduei ematen zaizkien izen desberdinek eta izaera fiskalagatik edo beste xedapenengatik dagozkien sailkapenek ez dute inolako eraginik izango Ordenantza hau ezartzerakoan.

Udal Zerbitzu Teknikoek sailkatuko dituzte Ordenantza honek arautzen dituen ostalaritzako establezimendu guztiak, 2. artikuluan zehazten diren ezaugarrien arabera, non hauetako bakoitza izenik orokorrenarekin edo erabilienarekin azaltzen baita.

*5. artikulua.*

Ostalaritzako eta jolas jardueretako establezimendu berriak irekitzeko asmoa dutenek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

5.1. Lurzoruaren hirigintza erregimena zehazten duten antolakuntza orokorrerako edo xehetasunezkorako tresnek ezarritakoa betetzea, hauek beren sailkapenaren arabera (hirilurra, urbanizagarria eta ez urbanizagarria) edo bere kalifikazioaren arabera (zonifikazio orokorraren edo xehatutakoaren araberako erabilera eta eraikin mota) ezarriko dira.

5.2. Ireki nahi diren establezimendu edo jarduerei dagokien segurtasuna, osasunketa, ingurugiroa, arkitektura, indus-

6.2. Establecimientos con más de 12 habitaciones y sin uso de vivienda.

Son aquellos establecimientos destinados al hospedaje de personas, tales como hoteles, hostales, pensiones y albergues que dispongan de más de 12 habitaciones para atención de los usuarios y campamentos de turismo que se emplacen en el suelo urbano o urbanizable.

Además el edificio en el que se ubiquen no existirá el uso de vivienda, a excepción de una para el gestor del establecimiento.

6.3. Establecimientos rurales.

Son aquellos destinados al hospedaje de personas en el medio rural tales como campamentos de turismo, agroturismo, casas rurales, albergues rurales y campamentos de turismo rural.

Grupo 7. Sociedades.

Son aquellos en los que su actividad de hostelería no tiene un fin lucrativo, sino de servicio a los socios o partícipes, tales como sociedades gastronómicas, txokos, asociaciones de vecinos, asociaciones de carácter político, cultural o deportivo.

Grupo 8. Provisionales.

Son aquellos cuya actividad se desarrolla por un tiempo determinado, sin vocación de permanencia aunque se establezcan con carácter periódico, tales como txoznas, casetas móviles o fijas, carpas etc.

*Artículo 3.*

A los efectos de lo dispuesto en la presente Ordenanza se entenderá por barra, aquel elemento de fábrica o mueble realizado con cualquier tipo de material o la conjunción de varios, ya sea vidrio, madera, acero, ladrillos, cerámica, hormigón, materiales compuestos, etc., a través del cual se sirvan bebidas alcohólicas y/o alimentos, para ser consumidos por los clientes bien apoyados en el mismo o en sus inmediaciones.

La dimensión y las posibles denominaciones que de dicho elemento puedan hacerse, tales como mostrador, expositor etc. no tendrán transcendencia alguna a efectos de aplicación de la presente Ordenanza, que se atendrá a la definición establecida en el párrafo anterior.

No tendrá la consideración de barra la que se instale en los establecimientos del grupo 2.3. cuya zona destinada al público sea mayor de 100 m$^2$, y la longitud de la barra no supere 1,5 ml., destinándose única y exclusivamente para recepción y espera de los clientes y servicio de las mesas.

*Artículo 4.*

Los diferentes términos con los que se suelen denominar los establecimientos de hostelería, y las clasificaciones que les pudieran corresponder en virtud de disposiciones de carácter fiscal u otras, no tendrán relevancia alguna en la aplicación de la presente Ordenanza.

Los servicios técnicos municipales clasificarán todos los establecimientos de hostelería objeto de regulación en la presente Ordenanza, de acuerdo con las características definitorias previstas en el artículo 2, que titula cada uno de ellos con la denominación más usual o genérica.

*Artículo 5.*

Para la instalación y apertura de nuevos establecimientos de hostelería y actividades recreativas, quienes los promuevan deberán:

